

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

#### Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

#### **25-PT-04-GMB Gambia Euskadi proiektuaren funtsezko aldaketa onesteko ebazpena, garapenerako lankidetzaproiektuei dirulaguntzak emateko 2025eko deialdiko PT atalari dagokiona**

Iragarki honen bidez, interesdunei jakinarazten zaie Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko maiatzaren 29ko ebazpena, zeinaren bidez onetsi egin baita 25-PT-04-GMB "Kambengo Pur Ñatota" proiektuaren (Gambia Euskadi elkarte) funtsezko aldaketa, garapenerako lankidetzaproiektuei dirulaguntzak emateko 2025eko deialdiko PT atalari dagokiona.

Funtsezko aldaketak, 2026ko maiatzaren 18ko txosten teknikoan jasotzen den bezala, proposatzen du «A.03Tresneria, materialak eta hornikuntzak» partidarako aurreikusitako zenbatekoa «A.02 Eraikinak eraiki eta eraberritzea» partidara eramatea; hala, azken partida hori 6.773,92 eurokoa izatera igaroko da, baina gainerako partidak, udal-dirulaguntzaren guztizkoa (10.000,00 euro) eta tokiko ekarpena (1.766,00 euro) ez dira aldatuko.

Funtsezko aldaketaren arrazoia da proiektuaren exekuzioa luzatu egin dela, ez dagoelako espaziorik ikasleak birkokatze eta igande eta jaiegunetan lan egin behar delako, eta, gainera, instalazioak erabilgarri utzi behar direlako lanaldi bakoitzaren amaieran. Gainera, obrak egin bitartean, lurzoria konpontzeko eta sabai aizun bat instalatzeko beharra antzeman da, eta jarduketa horiek ez ziren hasieratik aurreikusi.

Aldaketa-eskabideak eragina du aurreko atalean labur adierazitako eta txosten teknikoan zehaztutako proiektuaren alderdietan. Obrak egin bitartean gerora sortutako eta aurreikusi gabeko inguruabarrak dira aldaketaren arrazoia, eta hori bat dator oinarrien 13.4 artikuluan aurreikusitako kasuarekin.

Txosten teknikoa ikusita eta Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenak eskuordetzeari buruz Alkateak 2023ko ekainaren 22an emandako Dekretuarekin bat etorriz, Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkariak, 2026ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki-proposamen hau onetsi zuen:

#### Erabaki-proposamena

Lehena. Gambia – Euskadi Elkarte Soziokulturalak eskatutako funtsezko aldaketa onestea "Kambengo Pur Ñatota" – La unión hace la fuerza proiektuari dagokionez; aldaketak honako alderdi hauei eragingo die:

Ekipamenduetarako aurreikusitako partida baliatzea eraberritzerako partida handitzeko. Aldatzekoa den zenbatekoa 3.228,65 euro-koa da, 10.000,00 euro-ko udal-dirulaguntzatik; dirulaguntzaren zenbateko guztiaren ehuneko 32,29ko aldaketa.

Bigarrena. Onartutako aldaketak ez dakar aldaketarik jatorrizko emate-ebazpenean, ezta haren idazketan ere, bertan ez baita zehazten zenbat kooperatibek parte hartu duten.

Hirugarrena. Ez dira aldatuko jatorrizko emate-ebazpenean ezarritako gainerako baldintzak, ezta dirulaguntzaren zenbatekoa, gauzatzeko eta justifikatzeko epeak eta entitate onuradunaren betebeharrak ere.

Laugarrena. Erabaki honen kontra errekurtsio hauek aurkez daitezke:

– Berraztertzeko errekurtsioa, hilabeteko epean —jakinarazte-egunaren biharamunetik kon-  
tatuta—, hartu duen organo berari zuzendua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura  
Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik. Errekurtsio  
horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-erre-  
kurtsioa aurkeztu ahalko da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi  
hilabeteko epean, errekurtsioa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biha-  
ramunetik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori  
gertatzen den egunaren biharamunetik.

– Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko  
Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik.

– Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, nahi  
badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 arti-  
kuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 3an

*Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkaria*  
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ